

Ikastola Lagunak: I. Ekintza soziala

Ikastoletan eta Ikastolen Elkartean, aktiboki parte hartu duten eta ikastola ereduak partekatzen ez ezik beraien ikuspuntutik ekarpena egiteko prest dauden ikastola kideen bilgunea da IKASTOLA LAGUNAK.

Taldearen xedea da ikastola ereduak ezagutzuz, etengabe gozatu, barneratu, zabaldu, garatzen laguntzu, partekatu, iritzia eman eta elkarrekin hausnartu eta bere kasuan ekarpena egiteko eta aberasteko egitekoak izango ditu, batez ere ikastola ereduaren ezaugarri historiko eta dimentsio sozialean sakonduz.

Egitasmoa indartzen eta gorpuzten ari denez, aurten **bihar, maiatzak 23, Arrasaten**, I. EKINTZA SOZIALA antolatu dugu. [Ikus egitaraua](#).

PARTAIDETZA da ikastola ereduaren ezaugarrietako bat eta IKASTOLA LAGUNAK egitasmoa partaidetza horretan oinarritzen denez, Ekintza Sozialaren barruan mahainguru bat antolatu dugu "Gaur eta biharko partaidetza soziala". Bertan izango dira gaiari buruzko erreferentziako diren adituak: Iñigo Iñurrategi, Unai del Burgo eta Itzea Urkizu.

Ekintza irekia da, eta interes duen edonor gonbidatua dago.

Artezkari-tza kontseiluaren bilera-data

Datorren asteazkenean, maiatzak 27, Artezkari-tza Kontseiluaren hurrengo bilera izango da. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkari-tza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.

 Ikastola
Lagunak
UDARREGI IKASTOLA
USURBIL

Ikastola-Eguna

Aurten, **Ikastola-Eguna ekainaren 6an** ospatuko dugu eta egun horretako bazkaria antolatzen hasiak gara (500 lagunentzat izango da, gehienez).



Bazkarirako eta ondorengo festarako txartelak eskuratzeko salgai izango dituzue:

- Ikastolako idazkaritzan maiatzaren **27tik 29ra, 8:00-13:00 bitarte.**
- Agerialdeko jolastokian maiatzaren **19, 22, 26 eta 29an 16:30-17:00 bitarte.**

Hurbilago Ostalaritza Taldearen eskutik jarritako menua:

Ikasleentzat:

- Makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura: **11 €**

Helduentzat:

- Entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ardoa/ura, kafea eta pattarra: **17 €**

*Alergiaren bat izanez gero, txartela erosterako garaian, bertan jakinarazi.


*LH 1etik aurrerako ikasleek beraien taldearekin eseriko dira, baina norbaitek hala nahi ez badu, tiketa erosterakoan adierazi behar du.

*Taldea bat osatzen duten pertsonen kopuruaren berri eman ahal izango da, elkarrekin eseri ahal izateko, frontoian bertan 12:00ak arte. Ordu horren ondoren iristen direnek ez dute bermatuta izango elkarrekin eseri ahal izatea.

Bazkal ondoren ikasleen musika emanaldiak izango ditugu arratsaldea girotzeko.

Pantaila eta ordenagailuen antolaketarako lantaldea

Artezkaritza Kontseilua hurrengo urteetarako pantailen eta ordenagailuen erabileraren antolaketa berrikusten ari da. Teknologia hezkuntzaren parte garrantzitsua da, baina badakigu etxean eta ikastolan egiten den erabilerak elkarri eragiten diotela.



Azken urteotan, ikasleen behar pedagogikoak, segurtasun digitala, adinaren arabeko erabilera eta familiek dituzuen kezka kontuan hartuta, hausnarketa sakon bat abiatu nahi dugu. Horretarako, bide hau elkarrekin adostu eta hobetzeko lan-taldea bat osatzea dugu helburu.

Lantaldean parte hartzeko [galdetegi hau](#) bete.

Arratsaldeko zaintza ekainean

Ekainaren 1etik 19ra eskolak goizez soilik diren egunetan, 14:30etik 16:30era arratsaldeko zaintza zerbitzua emateko gutxieneko **taldea osatu da.**

Izena eman duzuenekin jarriko gara harremanetan.



Eskola Kirola 2026-27

Jarraian, datorren **2026-2027 ikasturterako Eskola Kiroleko** izen-emateen inguruko informazio garrantzitsua helarazten dizuegu:

1. Izen-ematea: igande honetan, maiatzak 24 amaiatuko da.



- **Zirimara Familiaran (0-6 urte), Zirimara (6-12 urte) eta Esku Pilota:** [galdetegi hau](#) betez egingo da. Eskaintzaren inguruan informazio gehiago [hemen](#) ikus dezakezu.
- **Futbola, Eskubaloia eta Boleibola:** DBH 1 eta 2ko mailen kasuan, **kluben bitartez** egin beharko da zuzenean, eta ez ikastolatik.

2. Bekak (Zirimara): 2025-2026 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren beka jaso duten familiek **ez dute kuotarik ordaindu beharko Zirimaran.** Hori balioztatzeko, izen-ematearekin batera **Eusko Jaurlaritzako beka agiria atxikitzea** ezinbestekoa izango da.

[Ekintzak, egutegi eta ordutegiak](#)

Ziromola: udako aisialdia

Prest dugu ikasturte honetarako Ziromola aisialdi eskaintza, berritu eta zabala. Gure ikasleek euskaraz, lagun artean eta ingurune ezberdinetan gozatzeko aukera izango dute.

Gure helburua aisialdi hezitzailearen bitartez euskararekiko atxikimendua eta ikasleen arteko bizikidetzaren sustatzea da. Jarraian duzue katalogo osoa, ekintza guztien xehetasunekin.

Informazio gehiago eta izen-emateak: www.zirimola.eus



Irakurle gazte(txo)en topaketa

Ekainaren 1ean, astelehenarekin, **16:00etan** Sutegi Liburutegian, IRAKURLE GAZTE(TXO)EN TOPAKETA. Azken urteetan Sutegi Liburutegian antolatzen dituen IRAKURKETA-SOLASALDIETAN parte hartu dutenei, eta gaiarekiko interesa dutenei zuzendua. LH 4tik gorakoentzat.

Bidelagun: Yolanda Arrieta.

Izen-ematea: Sutegi Liburutegian.

Iraupena: ordu bete inguru. [Hormairudia](#)



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



HH4 bilera: landutako proiektuaren azalpena

Datorren **asteartean**, **maiatzaren 26**, arratsaldeko **16:45ean** bilduko gara, HH4ko gelan pilotatu den proiektuaren berri emateko

OHARRA: Zaintza zerbitzua izango da.



LEHEN HEZKUNTZA

Irteerak

➤ LH5

Datorren **ostiralean, maiatzak 29**, irteera egingo dugu Donostiako Antzoki Zaharrera, **Moko, Indalezio Bizkarrondo “Bilintx”** ikuskizuna ikustera.

Egun osoko irteera izango denez, ikasleek **bazkaria eta ura** eramán beharko dituzte etxetik.

Hona hemen eguneko xehetasunak:

- **Topagunea:** Goizeko **9:00etan, Usurbilgo tren geltokian** (bertan irakasle bat egongo da taldearen zain).
- **Zaintzako eta autobuseko ikasleak:** Ikastolatik zuzenean abiatuko dira tren estaziora beste irakaslearekin batera.
- **Garrantzitsua:** Ez ahaztu **Mugi txartela** eramatea!



➤ LH3

Maiatzaren 26tik 27ra, LH3koak IRRISARRILAND-era goaz. Eramán beharreko gauzen zerrendak, zuen seme-alaben bitartez jasoko dituzue.

Maiatzaren 26an, Agerialdeko frontoian bilduko gara denok 09:00etan. Eta maiatzaren 27an, 16:30etan izango gara bueltan.

LH 6ko IRTEERA eta KOBRA NTZAK

LH 6ko ikasleak, ekainaren 8tik 10era Zuhatzara doaz eta irteera guztiaren kobrantzaren 2. eta 3. kuotak (egonaldia eta autobusa) datozen 2 hilabeteetan egingo ditugu. Apirilaren 13an, irteeraren lehen zatia kobrantza egin zen (25€). **Maiatzaren 25ean**, bigarrena kobratuko da, **25€** eta ekainean, geratzen den zatia.



LH6. mailako familientzat oharra

Datorren ikasturtean DBH 1. mailan egongo den ikasle bakoitzak Chromebook bat erosi behar du. Anai-arreba zaharrago baten chromebooka baldin baduzue berrerabili dezakezue, baina Google lizentzia ordaindu beharko da eta, kontutan izan, bermea 4 urtekoa izaten dela eta amaituta izango dutela. Berrerabili nahi den gailuak ikastolak eskaintzen dituen chromebook-aren ezaugarri berdinak izan beharko ditu.



Erosketa online egin beharko duzue Xenon-ek horretarako prestatu duen webgunean. Erosketa prozesuaren azalpen osoa [hemen](#) duzue. Ikastetxearen kodea **UI2605** da. **Eskaera egiteko azken eguna maiatzaren 31 da.** Zalantzarik baduzue, jar zaitezte ikastolarekin harremanetan eta lagunduko dizuegu.

LH 6ko IRTEERA eta KOBRANTZAK

LH 6ko ikasleak, ekainaren 8tik 10era Zuhatzara doaz eta irteera guztiaren kobrantzaren 2. eta 3. kuotak (egonaldia eta autobusa) datozen 2 hilabeteetan egingo ditugu. Apirilaren 13an, irteeraren lehen zatia kobrantza egin zen (25€). **Maiatzaren 25ean**, bigarrena kobratuko da, **25€** eta ekainean, geratzen den zatia.



BIGARREN HEZKUNTZA

Konpetentzia astea

Maiatzaren 28tik ekainaren 2ra DBHko ikasleek konpetentzien astea izango dute.

